

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUAREN (GLEK) BARNE-ERREGELAMENDUA

I. KAPITULUA. ALDERDI OROKORRAK

1. artikulua. Arau-esparrua

- 1.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren (GLEK) funtzionamendua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 5. artikulua araberara arautzen da.
- 2.- Ordezko gisa, GLEKen funtzionamenduari ezarriko zaizkio Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 2ko 40/2015 Legearen Atariko tituluko II. kapituluko kide anitzeko organoei dagozkien xedapenak.

II. KAPITULUA GLEKeko KIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

2. artikulua. Eskubideak

- 1.- Bileren deialdia jasotzea, gai-zerrenda eta aztertu beharreko gaien dokumentazioa barne, Erregelamendu honetan ezarritako epeen barruan.
- 2.- Eztabaidetan modu aktiboan parte hartzea eta proposamenak egitea.
- 3.- Eratzen diren lan-batzordeetan parte hartzea.
- 4.- GLEKen gai-zerrendaren arabera aztertu beharreko gaiei dagokienez Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian eskuragarri dagoen dokumentazioa eskuratzea.
- 5.- Osoko bilkurak eta lan-batzordeek garatzen dituzten gai edo azterlanei buruzko informazioa edukitzea.
- 6.- Bozkatzeko eskubidea baliatzea, aktan aldeko botoa, abstentzioa edo boto partikularra azaltzeko aukera, eta horiei buruz egokitzen den dokumentazioa aktari eransteko eskatzeko aukera izanik.
- 7.- Galde-eskeak egitea.

3. artikulua. Eskubideak

- 1.- Osoko bilkuraren bilkuretara bertaratzea, baita parte hartzen duten lan-batzordeen bilkuretara ere.
- 2.- Era konstruktiboan parte hartzea, gainerako kideak eta gainerako iritzi, posizionamendu eta arrazoibideak errespetatuz.

III. KAPITULUA GLEKen OSOKO BILKURAK

4. artikulua. Deialdia

1.- GLEKen Idazkaritzari dagokio GLEKen osoko bilkuren deialdia egitea, Batzorde Iraunkorraren baitan adostutakoari jarraikiz.

GLEKeko Presidentziak deituko ditu osoko bilkura horiek, gutxienez egutegiko hamabost eguneko aurrerapenarekin, eta, aldez aurretik, Batzorde Iraunkorraren bilkura egingo da, ohiko osoko bilkuraren gai-zerrenda ebazteko.

2.- Osoko bilkurarako dokumentazioa kide bakoitzari bidaliko zaio, egutegiko hamabost eguneko aurrerapenarekin.

3.-Deialdi horretan zehaztuko da gai-zerrendan aztertu beharreko gaiak informatiboak edo kontsultarakoak diren, edota txostenen bat ematea edo erabakiren bat hartzea eskatzen ote duten.

5. artikulua. Deliberazioak

1.- Presidenteak bilkurak zuzenduko ditu, eztabaidak ordenatuko ditu, eta bileren garapen egokia bermatzeko behar diren neurriak hartuko ditu.

2.- Presidente ez badago, presidenteordeak bere gain hartuko du bileraren presidentzia, eta, azken hori ere ez badago, idazkariak osoko bilkurari proposatuko dio bileraren presidentea nor izango den erabakitzea.

2.- Horrez gain, urgentziazko arrazoiak tarteko, presidentearen proposamenari jarraikiz, osoko bilkurak, bilkuren hasieran, gai-zerrendan bildu gabeko gaiak aztertzea erabaki dezake, bertaratutako kideen gehiengo sinpleaz.

6. artikulua. Bozketak

1.- GLEKen Dekretu arautzailearen 2.2 artikuluan aurreikusitako GLEKen funtzioen barruan, akordioek bozketaren beharra badute, boto-eskubidea duten bertaratutako kideen gehiengo sinpleaz hartuko dira akordio horiek. Berdinketa izanez gero, presidenteak kalitate-botoa izango du.

7. artikulua. GLEKen idazkaritza

1.- Idazkaritza da GLEKen administrazio-kudeaketaren ardura duen organoa, eta osoko bilkurara eta batzorde iraunkorrera bertaratzen da.

2.-Idazkariak hitza izango du deliberazioetan, baina ez botoa emateko aukera.

3.- Idazkariak honako funtzio hauek ditu:

a).- Bilkuren deialdiak egitea eta bidaltzea, GLEKen presidentearen proposamenari jarraikiz.

b).- Presidenteari laguntzea, bere karguari dagozkion gaietan eskatzen zaion bakoitzean.

c).- Jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo bere kargua dela-eta ezagutu behar duen edozein idazki jasotzea.

d).- Akten artxiboa, Kontseiluko kide diren entitateen erregistroa eta Kontseiluko titular eta ordezkoen zerrenda egunean eramatea.

e).- Kontseiluko organoek agintzen dizkioten gainerako guztiak.

8. artikulua. Bilkuretako aktak

1.- Idazkariak osoko bilkura bakoitzaren akta bat idatziko du, GLEKeko kideei bidaliko zaiena eta hurrengo ohiko osoko bilkuran onartzeko eztabaidatuko dena.

2.- Aktan bilduko dira bertaratutako pertsonen zerrenda, bileraren gai-zerrenda, bilkura egiteko tokia eta data, deliberazioen laburpen bat eta hartutako akordioen edukia.

3.- Aktak onartu eta idazkariak presidentearen oniritziarekin sinatu ondoren, jendaurrean jarriko dira, GLEAko webgunean interesatutako edozein pertsonaren esku egongo dira, eta GLEAko idazkariaren zaintzapean geratuko dira.

IV. KAPITULUA BATZORDE IRAUNKORRA

9. artikulua. Osaera, funtzioak eta bozketak

1.- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 5.4 artikuluan ezarri dira Batzorde Iraunkorraren osaera eta funtzioak.

2.- Kontseiluko presidentek deituko du Batzorde Iraunkorra, gutxienez 48 orduko aurrerapenarekin.

3.- Idazkaria bertaratuko da bileretara, hitzarekin baina botorik gabe, bilkuren akta egiteko.

4.- Boto-eskubidea duten bertaratutako kideen gehiengo sinpleaz hartuko dira akordio eta ebazpenak. Berdinketa izanez gero, presidentek kalitate-botoa izango du.

10. artikulua.- Urteko programazioa

1.- Urteko lehen hiru hilabeteetako bileran, Batzorde Iraunkorrak programatuko ditu, urte osorako, GLEKen ohiko bilkuren gai-zerrenda posibleak eta gutxi gorabeherako datak.

2.- Programazio hori zehazten joango da Batzorde Iraunkorrak egingo dituen bileretan.

V. KAPITULUA. LAN-BATZORDEAK

11. artikulua.- Lan-batzordeak sortzea

1.- GLEKen Osoko Bilkuraren erabakiaren bitartez beste batzorde ez-iraunkor batzuk sortzeko aukera izango da, lanean lagunduko diotenak, eta batzorde horien osaera, jarduteko araubidea eta funtzioak sorrera-akordioan ezarriko dira.

Nolanahi ere, batzorde ez-iraunkor horiek, lanak amaitzerakoan, dokumentu bat aurkeztu beharko diote Osoko Bilkurari, hark behin betiko onarpena eman dezan, eta onarpen horrez geroztik desegingo dira, Osoko Bilkurak ebazpen espresurik eman beharrik gabe.

AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau aldatzeko edozein proposamen GLEKeko presidentearen bitartez aurkeztu beharko da, eta hark Osoko Bilkurari aurkeztuko dio, eztabaidatu, eta, hala badagokio, onar dezan. Erreformak gehiengo sinpleaz onartu beharko dira.

(2016.10.26 bilkuran onartuta)